

ESPANIAREN BAKEA, ERASOA ETA IRUZURRA

Abaltzisketa (2006.5.19)

Gaur egun, burua eta bihotza euskalduna duen edonorentzat, herri-nazioen askatasuna inperialisten gorte edo legebiltzarretik, zapaltzaileen edo despoten graziatik eta indultuetatik ezin daitekeela eratorri nabaria da. Euskaldun guztiok estu lotu eta altxamendu orokor bat eginez baino ez da posible izango askatasuna eskuratzea. Gurea, biolentzian oinarritutako zapalkuntza izanik, erdibideko erlazio baketsua ezinezkoa suertatzen da, inperialisten biolentziak eta askatasunean oinarritutako erlazioak ezin baitute bat etorri.

Herralde eta estatu guztiek bere legeak dituzte, baina horiek beste batetik eratorriak izateko ez dago goiko legerik. Indarretik sortuak diren lege horiek ez dute goragoko legerik onartzen. Nazio Batuen Erakundea bezalakoak ezin dute amets hori bete, toki eta garai guztietan indarra baino ez baita egon. Indarra bera baita bere buruaren epaile, hain zuzen. Arrazoia goraiatzeko den une hauetan ere indarra da nagusi, indarrak arrazoia bere mende eta esanetara jartzen baitu.

Orain bizi dugun “negoziaketa eta bake prozesu” hori azaltzeko, zelan darion engainua eta gezurra, istorio bat kontatuko dizuet. Istorio honek argi uzten du edozein erlaziotan indarrak duen garrantzia; eta gainontzeko guztia, alderdi “abertzaleek” egiten duten modura, herria engainatzeko erabiltzen da. Istorio honetan, ordea, arratoiak euren indarrak nolakoak diren jakinda, beste politika bat hartzen dute. Ez dute euren burua erabat lotzen, noski.

Katuak eta Arratoiak

Diotenez, aspaldi batean, katuen klanak batzar bat egin zuen. Beraien helburua arratoinen klanaren aurka behar bezalako erasoa prestatzea zen. Katuen erregeak zuzendu zuen batzarra. Behin, bilerara deitu eta denak bildu ondoren, erregeak hitza hartu eta esan zien: “Oh katuen klana, agur! Denok ondo dakizuen bezala, hemen bildu gara aurten, arratoinen klanak urte oparoa bizi duelako. Eurekin mundua ona izan da. Kopuruz biderkatu eta gizendu egin dira. Guk, ordea, gosea jasan izan dugu. Denok ahul eta mehe gaude. Beraz, adiskideok, arratoinen haragi samurraz geu gizentzeko, denak harrapatzeko plana pentsatu behar dugu. Zelan egin?”

Orduan, katu zahar eta jakintsu batek hartu zuen hitza. Esan zuen: “Gora erregea! Proposamen bat egin nahi dizuet. Gure xedeak, sekulako BAKE hitzarmen bat eskainiz arratoiak geureganatzea izan behar du, eta horrela gure hatzaparretara ekartzea, hau da, geuk ipinitako tranpara eramanez, Arratoinen klana engainatzea. Klanen arteko bake konferentzi batera deituko dugu. Bilera arbola gabeko zelai batean egingo da. Arratoinen klanak ezkutatzeko babeslekurik izango ez duen lekuan, hain zuzen; horrela ez da zaila izango denak batera harrapatzea.”

Katu zahar eta jakintsuaren proposamena gogo handiz hartua izan zen. Katuen klaneko erregeak, berriro, hitza hartu zuen, eta esan zien: “Agure abila, jakituria urteetan izan dezazun! Egin diguzun proposamena aparta da. Bake proposamen hori hartuz Arratoi klaneko erregerengana joango naiz informatzera, eta bere onespena lortzen saiatuko naiz. Horren berri izango duzue.” Orduan, katu guztiak txalotu zuten oihukatuz “Gora erregea!”, eta horrek ekitaldiari bukaera eman zion.

Katuen klaneko erregea, berriz, Arratoi klaneko erregea ikustera joan zen. Bi klanen arteko sinpatia hutsaren hurrengo zenez, eta denboraldi horretan elkarren artean inongo konfidantzarik egon ez zenez, elkar hitz egiteko, urrutitik, egin behar izan zuten.

Katuen erregeak hitz egin zuen: “Oh Arratoi klaneko errege! Oh askatasunaren sinbolo, oh jakintsuen jakintsu! Bakea eta aurrerapena zurekin!”

Arratoi klaneko erregeak agertu eta esan zuen: “Oh katuen errege ! Oh zuhaitz, bere itzalak dena estaltzen duena!, oh munduko epaile!, oh gaitzaren aurkako babesle! Bakea zurekin! ¿Zer berri dakarzu?”

Katuen klaneko erregeak, zuzenean harira joanez, esan zuen: “Bakea dakarkit. Proposamen bat egitera natorkizue. Dakizun bezala, Katuen klana eta Arratoi klana betidanik etsaiak izan dira. Etsaigo hori bai zuentzat bai guretzat kalterako izan da. Zuek hiltzeko dugun ohitura txarrak zuen kopurua murrizten du. Guk, geure aldetik, ehiza dela eta, kalteak jasan izan ditugu. Sasi artetik zuen atzetik joaten gara, eta arantzekin begiak zulatuak ditugu. Hori dela eta, ia denok itsuturik gaude. Hortaz, gure arteko irtenbide egokiena Bakea izan zitekeela pentsatu dugu. Dirindiir-ko lautadan Klanen arteko bilera ofiziala proposatzen dizuegu. Han izugarritzko BAKE hitzarmena eginez, benetako anai-arrebak izango gara. Bilera ilbetearen hurrengo egunean, eguerdian, egitea proposatzen dizuegu.”

Arratoi erregeak honela erantzun zion: “Agur eta oparotasuna zure Maiestatea! Zure proposamena ofizialki hartzen dugu. Finkatu duzun bilera eguna onartzen dugu, eta Bakezko biltzarra burutzea espero dugu.”

Katuen erregeak alde egin zuen. Maiestatea begien bistatik galdu zuenean, Arratoi erregeak bere menpekoei deitu zien. Esan zuen: “Katuen erregea ikustera etorri zait. Bakeaz hitz egin dit, eta beraiekin Bake hitzarmena adostea proposatu dit. Eskaintza onartu egin dut. Bilerak Dirindiir-ko lautada gorrian behar du izan. Hitza bete behar dugu beti, euskaldunon hitza da eta. Hori horrela, bilerara joan beharra daukagu, baina, hala ere, Katuen klanaz ezin gaitzke fidatu. Eskarmentuak irakatsi digu. ¿Zer egingo dugu?”

Orduan arratoi zahar eta jakintsu batek hitz egin zuen: “ Dirindiir-ko zelaian, bilera baino egun bat lehenago, arratoi bakoitzak bere burua ezkutatzeko zulo sakon bat hondeatzea proposatzen dut. Eguna iristean, denok goizetik garaiz irten, eta arratoi bakoitzak zulotik ateratako lurra urrutira eramango du, susmoak ekiditeko hain zuzen. Arratoi bakoitza bere

iheslekuaren aldamenean eseriko da. Katuen klanekoak bake- asmoz badatoz, dena ondo egongo da. Aldiz, uste dugun bezala, erasotzen baldin bagaituzte, arratoi bakoitzak bere ezkutalekura joko du.”

Ikuspuntu hori onartzen da, eta denak banantzen dira. Arratoiak, lautadara joanez, bakoitzak bere ezkutalekua egin eta, lurra urrunduz, sarrera disimuluan ipini zuen.

Bilera eguna ailegatu zen. Arratoinen klana Dirindiir- ko lautadara goizeko lehen orduan joan zen, eta arratoi bakoitza bere zuloaren aldamenean eseri zen. Eguerdi aldera, promes handiak zekartzatela, Katuen klanekoak azaldu ziren. Entzunak izateko nahiko gerturatu zirenean, katuen erregea menpekoei zuzendu zitzaien, eta Arratoinen klanean ez zuenez susmorik sortu nahi, esertzeko esan zien. Arratoinen erregeari deituz esan zion: “Arratoinen errege, zure menpeko guztiak bertan al dira?”

Arratoinen erregeak erantzun zion: “Bai, denak hemen dira. Zure menpekoak ere hor al dira?”

Baietz erantzun zion, eta katuen erregeak orduan esan zuen: “Oh errege! Orain bertan, nire menpekoei bileraren protokoloa azaldu behar diet. Itxaron, mesedez.” Hori esanda, jiratu eta klana ikuskatu zuen. Erasorako zuen presta- lanaz gustu sentituz, Arratoinen klanari berriro so egin zien. Arratoiak denak lodi zeudela eta urte ona izaten ari zirela ikusi zuen. Arratoinen erregeak bere haragi ugarian bere arrazak izandako gorakadaren ezaugarri guztiak zeramatzala ikusi zuen. Katuen errege berak erasotzea erabaki zuen. Gerrako irrintzia egiten den eran, boza altxa eta deiadarra egin zuen: Horiengana! Ez dezala inork ihes egin!”

Arratoinen erregeak besteak erasotzen zutela ikustean, atzeko bere hankatxoaren gainean zutitu eta bere klan-kideei oihu egin zien: “Anaiok, zuloetara! Ja!” Segundo baten denak barruan ziren, eta ez zen haien arrastorik gelditu.

Katuen klanekoek hitza eta promesa haustearren; oturuntza ez ezik, ohorea ere galdu zuten.

ESPAINIAR IMPERIALISMOAREN HELBURUA “BAKE HITZARMENAZ” GEURE BURUA ERABAT LOTZEA DA, HITZARMENA HERRIARI KATEAK EZARTZEA BAITA.

KATEAK HAUTSI DITZAGUN!